

ARGITARATZAILA: Euskal Editorea, SL
ZUZENDARIA: Martxelo Otamendi
ZUZENDARIORDEA: Xabier Lekunua
EDIZIO ARDURADUNA: Pilar Mendirait
PUBLIZITATEA: Irigarri, SL
LEGE GORDAILUA: 55-0662/03
BATZORDE PAREKIDEA: 1004-G884059

EGOITZA MAGUSIA: Martín Ugalde Kultur Parkea.
 Gudarien Etorbidea z/g. 20140 Andoain.
 Telefonoa: (0034) 943-304030 Faxa: 943-300943
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@iragarri.net
Harpidetzatzailea: 943-304345

ORDEZKARITZAK: Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-950452.
 Erredakzio faxa: 945-168307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Fandera 1.105-106 modulua. Posta kodea: 48901 Barakaldo. Telefonoa: 94-4180120.
 Erredakzio faxa: 94-4385100. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. **Nafarroa:** Irabeke Monasterioa
 45.13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366622. Erredakzio faxa: 948-273757. Publizitatea: 948
 366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. **Lapurdi:** Lises 3. Posta kodea: 64100 Baiona.
 Telefonoa: (0033) 559256220. Faxa: (0033) 559256303. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info

» jira

Erratza nondik nora

MAIALEN LUJANBIO

Behialako Amerika berri hartan, bakeroek errekan murgiltzen zuten, hondar artean urte printza txikiak bereizteko. Aldi berean, handik urrun, sukaldetan amonak zerabilen, alcaic bahtzeko. Oilategiko atearan alambreekin egina dirudi galbaheak; pandero metaliko bat da, txindata txikiak gabea.

Harriak bereizteko zena, herriak bereizteko egun. Herri izenak, bederatziz, sare metaliko gainean jarri eta zuloxoetatik iragaziko dira, hiru geratu arte, eta azken astinaldiarekin bakarria. Hala erabaki da Gipuzkoako errauste planta non eraiki. Nola ohidien Olimpiadetan: zenbait hiri hautagai eta 2012a zain. Galbahe olimpiakoan aukeraturiko hiriak, batez ere bere kaleetan bere galbaheak pasatzeko justifikazioa irabaziko du: egokitasuna eta itxuraren sare-zuloetatik kanpo geratzen den oro alfonbraperara. Hiria garbitzeko modua: zikin humanoak, bistarako deserosoak, erraztu, erraztu kanporantz.

Gipuzkoako herri izenak galbahetik letraz letra isuriko dira. Sarean bakarrik geratzeko zoria duena, bere izango da Olimpiadako hautagaia. Alderantzizkoa baina, zikinak kanpotik erdirantz erraztuko dizkiote.

» bira

Ezkontzeko eskubidea

HARKAITZ CANO


Berdintasunaren izenean, bada garaia homosexualak ez ezkontzeko duten pribilegio hori gal dezaten behingoz.

Chinaski, Bukowski en *alter ego*-ak, beti azpimarratzen zuen bere ez zela inolara ere bere ezkontzara berandu helduko, «nire ezkontza hileta litzatekeelako niretzat». Ezkontza ez da txorakeria: zerbaitegatik galdatzen da epaile bat, apaiz bat, kontzejal bat, itsasontzi kapitain bat edo Elvis Presley bat zeremonia behar bezala burutzeko. Epaileak pergaminoa jartzen du, apaizak erruaren zama, kontzejalak geruratasuna, itsasontzi kapitainak naufragioa edo flotagailua eta Elvisek tupea eta *juke-box*-a. Kontua, norberak neurriko ezkontza ospatzea baita, zerraldoa ere halaxe enkargatzen da eta, neurriara.

Bikoteak dira ezkontzaren funtsa. Bikoteei buruz, Jean Claude Izso idazle handiak, zera esaten zuen *Solea* liburua: «Ez zuk ez nik ezin dugu bata bestearen buru barruan bizi. Ira horrek beldur handia ematen du, ezta?». Zilegi da beldur horrexegatik ezkontzea ere.

Filosofoa ezkontzeko aholkatzen zigen, edozein kasutan: «Ondo ateratzen bada, zoriontsu izango zara. Gaizki ateratzen bada, filosofo izango zara».

» martintxo



» hitzordua

Kafkerria

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,
 'TXILLARDEGI'

IDAZLEA

Ekainaren 13ko Hauteskundeak joan dira. Eta ez dugu lerro askorik erabiliko horretan. Nor bere irizpidea badauka.

Baina azkeneko hilabeteetan eta urtetan pairatzen ari garen erasoaldiak etsiturik, ahoberokeria bide zaino zerbaiti eraso hitz hori erabiltzeko.

Hots, oso laburki, argigarri gerta daitezke azkeneko egunotan bildutako *perla* hauek.

1: *Campus*-a hasteko. Irakurleak ez daki, eta zertan jakin beharrik ez du, al dizkari hori zer den. Ikasle jendeak, bai. Hori baita U.P.V. delakoak (Universidad del País Vasco, alegia, Nafarroa eta Iparraldeko kanpo) argitaratzen duen agerkari ofiziala.

Egun hauetan bere 39. alea kaleratu du. 52 orrialde, formatu handikoa.

Elhuyarrek prestatu duen *Euskaren herri papera* atal berezia kenduta (lau orrialde euskara hutsuz) 48 orrialde gelditzen zaizkigu.

Hauetan, han hemenka sakabanatutako euskal zatitxoak bilduz, agian osa ditzakegu bizpahiru orrialde. Alegia: 3/48 zatiketa ginez, %6. Edo-ta, alderantziz garbiago, UPVak argitaratzen duen bere agerkarian, %94 idazten da espainolez.

2: Makina bat agiri eta prediku sutsu entzun ditugu bazterretan. 732 Diputatuko Ganbera muntro horretan, euskararen «presentziaren» beharrezkotasun hertsia errepikatu digute aspertu ere arte. Bazirudien bat-batean Euskal He-

rrian Euskarazko kide borrokalariak zirela denak. Alajainkoa! Hori erretolika aberatsa!

Hona balantzea: Mayor Oreja, Iturgaitz, Javier Pomes, Rosa Díez, Barbara Dürkhop, Lamassoure eta Josu Ortuondo. Batek ere ez daki euskaraz. («Tx» eta «tz» bereizten ez dakien hautagaiaren euskalduntasunaz, isiltzea onena. Adarrajotzekotan edo ez bada).

3: CCOO eta UGT sindikatu espainiarrek kritika gogorak egin dituzte Itzuntza Sailaren kontra. Hizkuntza eskakizunak direla-ta, kale gorrian geldituko omen dira orain 183 irakasle zintzo eta saiutu. 15-20 urteko eskarmentua duten irakasle fin, kalera. Horra! UGTko Luis Santiso izenekoak bereak eta bost bota ditu M.A. Iztuetaen aurka. Eta CCOOko Javier Nogalesek diskriminazio lotsagarria salatu du.

Irakaskuntza alorrean, ordea, 20 urte honetan aritu izan omen direlarik, zeren zain egon dira euskaldundu gabe, areago eskaini zaizkien baldintza ezin hobeak izanik? Zertan mamitzen ote da hizkuntza normalizazioa jaun eta andere horien ustez? Entzun al dute inoiz hizkuntza inperialismo hitz bikote ezaguna?

4: Oso gogoangarriak ere Nafarroako TVEko buru egiten duen Javier Anso

Zer ez genuke entzungo abertzaleok, hautagaien bat, biga edo hamar, euskaldun huts eta gaztelaniaz ez dakitenak balira?

jaunak esandakoak. Egunean minutu txatxar batzuk kokatzeko adinako unerik ez omen du ikusten programazio osoan. Bego.

5: Eta zer esango orain aurkezten diren Lehendakari-gaiez? PSOEK Pachi Lopez proposatzen du harro eta irmo: «Patxi Lopez Lehendakari orain». Eta PPK, bere alderik, beste hautagai jator bat aipatzen du: Maria San Gil. Ez bata, ez besteak dakite euskaraz arrastorik ere.

Eta Euskal Herriaz, oro har, azterketa bat pasa behar balute (Errepublika Baltikoetan bezala, adibidez), «ez aski» eta suspeno galantak bilduko litzuzteke. Arrotzak bairira arras.

Baina jira dezagun egocera. Zer ez genuke entzun beharko abertzaleok, hautagaien bat, edo biga, edo hamar, euskaldun huts eta gaztelaniaz ez dakiten gizakumeak balira?

6: Tabacaleraren arazoaz bi hitz, amaitzeko.

Erabakita dago: C.I.C.C.. Alegia: Centro Internacional de Cultura Contemporanea. Eta euskaraz nola deritzo?

Badantzur:

—*Es verdad. No hemos pensado en ese detalle.*

—C.I.C.C.-K.G.N.G., esate baterako. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea izan zitekeen; «en bilingüe» como dicen ustedes.

—¿Cómo?

—Edo, bestela, Pedro Miguel Erxenikeren ildotik joanez (Donostia Physics Center, gaizki ez banago), ingelesezko zerbait. Zergatik espainolez, hain zuzen?

Nik badakit.

Eta zozoa ez den irakurleak ere bai.